



Zabalandikoa (-a) etxebizitza

Aldacrak:

Ahozkoa: Sabalándikúe / Sabáliek



43° 10' 5"

2° 33' 40"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

"... la casería titulada Zavala-andicoa... situada en la barriada de Ocango jurisdicción de la Anteglesia de Berriz, que comprende con inclusión de un horno, zaguanes y tejabana doscientos veinte y siete estados cuadrados superficiales de planta solar y la que se compone de dos viviendas con piso bajo y alto a manera de entresuelo..."

DJE 1/152 or. (1865)

Egun Bilbo-Baiona autopistaren ondoan kokatzen den baserri honen gaineko lehen aipamena XVIII. mendeko Bizkaiko su-erroldetan aurkitzen dugu, 1704. urtean *Zabala de Suso* moduan agertzen baita. Horrek agerian uzten du beheko partean *Zabala de Yuso* izeneko beste baserri bat zegoela (**Ikus Zabala**). 1825eko polizierroldan *Zabala de alla* agertzen den bitartean, hurrengo urtean, 1826an, *Zabalaandicoa* (1826, BAHF, A331/15. or.) euskal forma erregistratzen da lehendabizikoz.

1859ko salbuespenarekin, izendegian *Zabálas* izenarekin inguruan dauden hiru etxeci erreferentzia egiten zaie, eta *Zavala andicoa* (1865, DJE, 1/ 148. or.) idatzizko forma gailentzen da XIX. mendeko bigarren erdialdetik aurrera: *Zavala Andicua* (1905, BUA, 40. or.) eta *Zabalaandicoa* (1967, BUA, CE). Berriztarren artean ere, *Sabáliek* izendapenaz erreferentzia egiten zaie hiru etxe hauci, eta *Sabalándikúe* erabiltzen da goialdean dagoen baserria identifikatzeko.

toponimia

Izenaren bigarren osagaiak, Andikoa, Zabala etxearen "beste aldean" dagoen etxea adierazi nahi du eta ez handia.



Berriz Iruditan / T. Angoitia

XIX. mendeko eta XX. mende hasierako baserri tipikoa, bi pisu eta ganbaraduna. Hormak luzitu eta pintaturik baditu ere, aipatzekoak dira harlanduzko leiho ederrak eta atarteko arkuak ere, edo ganbarako balkoia, hormigoizko zorua daukana eta burdinazko karela. Teilatua bi isurkitakoa da. Hala ere, esan beharra dago jatorrizko etxea txikiagoa zela, eta fatxada nagusia simetrikoa izango zela, sarrerako arkuak ardatz hartuta. Arku bat oraintsu atera dute, etxea era-

berritu dutenean. Beste ekinaldi batean handitu egin zuten, eskuma aldera beste bina leiho zabalduz pisu bakoitzean. Segurutik, orduan aldatuko zuten etxearen gailurra eta ganbara ere garai berean burutuko zuten, gaur egun duen itxura ordenatua emanaz.